## Larratxo

# Jaietako koadrilak bizirik

**Ostiraletik igandera bitartean, festetan murgilduko zaigu Larratxo. Kontzertuak, dantzaldiak edota pilota partidak izango ditugu eta, nola ez bada, koadrilen jaitsiera, ostiral iluntzean.**

Sara Soria

Auzoko zenbait gaztek, Egiako Porrontxoetan aspalditik egiten dena eredutzat hartuta, koadrilen jaitsiera antolatu zuten duela lau urte. Orduz geroztik, urtero, jaietako lehendabiziko egunean, lagun koadrilak, erosketak egiteko moduko karro bat apaindu eta kalimotxoz edo bestelako "erregaiez" bete ondoren, Txirrita bertsolariaren kalean behera abiatzen dira, Galeoi tabernatik Txalaka elkarteraino. Koadrilek irina eta ura botatzen diote elkarri. Beraz, askotan, koadrilakide guztiek, ibilbidea hasi orduko, kroketa itxura izaten dute.



### Sekulako giroa

Txoko izeneko koadrilako Jagobak urtero parte hartzen du Larratxoko jaitsieran eta berak esan digunez, *"ekimena gazteen parte hartzea bultzatzeko sortu genuen, eta helburua lortu dugu. Gazteok jaitsieran parte hartzen dugu. Gainera, balkoietara auzotar asko ateratzen dira, gu ikusteko. Beraz, sekulako giroa izaten da auzoan"*. Esan bezala, aurten koadrilen jaitsiera laugarren urtez jarraian egingo da. Lehen urtean, bat-batean antolatu zuten eta bi taldek besterik ez zuten parte hartu. Bigarren urtean, koadrilek gaztetxearen beharra aldarrikatzeko aprobetxatu zuten jaitsiera. Iaz, euria barra-barra egin zuen, baina sei koadrilatako kideek zira jantzi zuten eta jaitsiera inoiz baino jendetsuagoa izan zen. Aurten ere bospasei koadrila ibiliko dira. *"Jadanik 50 kilo irin, ur pistolak eta, badaezpada ere, zirak prest ditugu. Aurten karroa pirata untzi bilakatuko dugu"*, esan digute Txoko koadrilako kideek. Ostiraleko jaitsieraz gain, koadrilek beste hitzordu bat izan ohi dute jaietan, larunbateko afaria, hain zuzen.

### Jai batzordea larri

Bistan denez, urtetik urtera, Larratxoko jaietan, ohitura bihurtzen ari da koadriletan parte hartzea. Jai batzordea, hala ere, estu eta larri ibiltzen da jaiak antolatzeko: *"Gero eta auzotar gutxiago gaude jai batzordean. Auzotarrek laguntzea nahi genuke, festak gainbehera etor ez daitezen"*, dio Juan Luis Apalategi batzordekideak. Kontuak kontu, ondo pasa denok!

ITSAS MENDI
Andoain
ERREMOLKEAK, FURGONETEN ERALDAKETA, AUTOKARABANEN ALOKAIRUA
KARABANAK: KNAUS - ERIBA, ROLLER - EIFELLAND
AUTOKARABANAK: HYMER - PILOTE - KNAUS, BENIMAR - RIMOR
www.itsasmendi.com itsasmendi@itsasmendi.com
Errepide ondoan - 20140 ANDOAIN -
Tel.: 943-59 32 90 Faxa: 943-59 41 74

Decoraciones Gros
• Parketa eta dornadurak
• Mota guztietako lurzoruak
• Hormetako estaldunak
Livos Produktu naturalak (Pintura, argizari, olioak, etab...)
San Frantzisko, 19 behea Ø eta faxa: 943 27 85 05

MAGNETISTA NATUROPATA
Tel.: 943 623055 - San Marzial 7 - IRUN
ERREKUPERAZIOAK: - Diabetea - Larruazaleko alergiak - Asma - Buruko mina - Prostatisa - Birusak - Oinetako izerdia
ORDUTEGIA: Goizez: 9-13. Arratsaldez: 14-19. Aurretik ordua hartu
IKUSMENA ERREKUPERATZEA: - Begi nagiak - Miopia - Hipermetropia - Estrabismoa - Begi-lausoak
GIHARRETAKO ARAZOAK: - Erreabilitazioa - Artrosia - Erreuma-artritisa - Lunbalgiak - Lepoko mina
Zentru ez sanitarioa

## Egitaraua




### Ostirala 6

**17.30** Txokolate jatea, Josu Artetxe plazan

**18.30** Eriz Magoaren erakustaldia, Josu Artetxe plazan

**19.30** Musika korala, Nazareteko Jesusen Parrokian

**20.00** Zezensuzkoa

**21.00** Koadrilen jaitsiera, Galeoi tabernatik, Burrunbada taldearekin

**23.00** Danborrada Jatorrena txarangarekin

**23.30** V. Dantza Txapelketa. El Genio (Planet Radio), CarlosDmaria (GOA) eta Patxi (Buenawista) dj-ek dantza txapelketa girotuko dute house eta techno musikarekin

**00:00** Orquesta Avenida taldea, Josu Artetxe plazan

### Larunbata 7

**11.00** Erretiratuentzako hamaiketakoa, Gureak zahar etxean

**11.00** Toka eta pote txapelketa, Galeoi tabernan

**11.30** Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia, Josu Artetxe plazan

**12.30** IX. Borroka Arte Erakustaldia Kimusibi taldearekin, Josu Artetxe plazan

**16.00** Haurrentzako puzgarriak eta zezen mekanikoa, Kolunpioen Plazan. Areto futbol txapelketako finala

**16.30** Tute txapelketa Bikutz tabernan eta mus txapelketa Lanbroa tabernan

**17.30** VI. Sagardo Eguna eta sardina jatea, Josu Artetxe plazan

**18.00** Erretiratuentzako dantzaldia Hodei taldearekin, Gurea zahar etxean

**20.00** Erraldoiak eta buruhandiak Amarako dultzaineroekin

**20.00** Emakume Ausartak taldearen "La enfermera siempre llama dos veces...o más" antzezlana, Altza kultur etxean (Larratxo pasealekua 55)

**21.30** Koadrilen afaria

**23.45** Zezensuzkoa

**00.00** Kaotiko eta Surfin Kaos taldeen kontzertua, ikastetxeko jolastokian. Ahots & Company taldearen doinu kubatarrak, Josu Artetxe plazan

### Igandea 8

**09.30** Diana, Amarako dultzaineroekin

**09.30** Puzgarri aerostatikoa, ikastetxeko jolastokian

**11.00** Haur danborrada Jatorrena fanfarearekin

**11.00** Jose Anjel Gastesiri omenaldia, Txirrita frontoian

**13.30** Poteoa eta kalejira trikitilariekin

**14.30** Zikiro jatea ikastetxeko jolastokian

**17.30** Erraldoiak eta buruhandiak Ilunbe dultzaineroekin

**18.00** Jousilouli eta Apurtu taldeen kontzertua

**19.30** Jota jaialdia Voces del Ebro taldearekin

**21.30** Azken traka eta agurra

IMANOL
HARATEGIA URDAITEGIA
Gure baserrietako haragia
Txirrita bertsolaria 14 • Tel.: 943 39 29 40 • DONOSTIA

ALBAITARITZA KLINIKA
ALTZA
LARRIALDIAK (24 ordu) Tel.: 608 676435
Ordutegia. Astegunetan: 10.00-13.00 eta 16.30-20.00
Larunbatetan: 10.00-13.00
Larratxo pasealekua 32, behea • Tel. eta Fax: 943 396839

Odontologia etxeak
CENTRO ODONTOLOGICO LARRATXO CLINICA DENTAL
Odontologia Inplanteak Protesiak
Ortodonzia Peridonzia Garbiketak
Azterketak eta doaneko aurrekontuak
Gure beherapenak eta finantziabideez galdetu
Centro Odontologico Egia
Egia 10
Tel.: 943 29 13 50
Centro Odontologico Gros
Zabaleta 37 behea
Tel.: 943 32 32 52
Centro Odontologico Larratxo
Larratxo pas. 30 behea
Tel. : 943 40 14 47

IRALE
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Larratxo pasealekua 51-53 • Tel.: 943 393921